

# "Zure udalerriko eskola-inguruneen kalitatea ebaluatzeko kontrol-zerrenda"

"Eskola-ingurune seguruak eta osasungarriak" ekimenetik 11 adierazle garatu ditugu, udalerriek, elkarteek, ikastetxeek edo interesa duen edozein erakundek autoebaluazioak egin ditzaten eskola-inguruneen egoerari buruz eta beren udalerrietan haurren eta nerabeen mugikortasun aktiboa, jasangarria eta autonomia sustatzeari buruz.

11 adierazle horiek "Eskola-ingurune seguruak eta osasungarriak" ekimenean jasotako proposamenekin lotuta daude, eta udalerrri edo erakunde/eragile interesdun bakoitzak hasierako eta aldizkako ebaluazioa egiteko diseinatu dira (2 urtean behin), ebaluatutako eskola-inguruneak hasieran zein fasetan dauden jakiteko eta, ondoren, denboran zehar izandako aurrerapena ikusi ahal izateko. Horrela, egoera "idealera" iristeko hobetu behar diren alderdien kontzientzia har daiteke. Azpimarratu behar da adierazle horiek sinplifikazio bat direla, eta askoz gehiago erabil daitezkeela, baina gure ustez aplikatzeko nahikoak eta egingarriagoak dira, eta aukera ematen dute udalerrri bakoitzeko egoeraren ideia bat izateko eta neurri zehatzak hartzeko beharrez kontzientziatzeko, bai eta beharrezko aldaketak egiteko tresnak eskaintzeko ere (ikus *Zer gehiago egin dezakezu?* atala ekimenaren webgunean).

## NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Parte hartzea oso erraza da; helburua da udalerriek, ikastetxeek edo elkarteek (guraso elkarte, GKEak eta abar) autoebaluazioa egin ahal izatea lortzeko eta jakinarazteko errazak diren adierazleetatik abiatuta. Parte hartzeko mekanismoa desberdina da udalentzat eta ikastetxe edo elkarteentzat. Oraingoz, tresna diseinatzeko eta probatzeko fasean gaude. Beraz, eskerrik asko zuen parte-hartzeagatik eta zuen ekarpen eta iruzkinengatik. Parte hartzera animatzen zaituztegu?

## UDALA BAZARA

Parte hartu nahi duten udalerriek horretarako prestatutako **inprimakia bete** beharko dute, eta honako datu hauek adierazi beharko dituzte: Harremanetarako datuak, udalerriko biztanleria osoa, inkesta erantzuteko unean udalerrian dagoen adin-tarte bakoitzeko ikasle-kopurua, hezkuntza-etapa bakoitzeko ikastetxe-kopuru osoa, ikastetxeko edo institutuko ikasle kopuru osoa, ikastetxe eta institutu guztien datuak ordenatuta badaude, ikastetxe eta institutuen datuak: Datu horiek baliagarriak dira parte hartzen duten udalerrien ezaugarrien ideia bat izateko eta estatistikak egiteko. Era berean, udalerriek adierazle bakoitzaren betetze-maila adieraziko dute (guztiak aldagai jarraituak dira, 10. adierazlea izan ezik). Lehenengo autoebaluazioa egin eta bi urtera, udalerriekin harremanetan jarriko gara berriro egin dezaten, eta berdin hurrengo urteetan.

**Garrantzitsua:** inprimakia bete ondoren, bidali e-mail bat [mireia.gascon@isglobal.org](mailto:mireia.gascon@isglobal.org) helbidera, bete dela jakinarazteko.

## UDALA EZ BAZARA

Parte hartu nahi duten elkarteek edo ikastetxeek horretarako prestatutako **inprimakia bete** beharko dute, harremanetarako datuak adieraziz, bai eta informazio gehigarria ere, halakorik izanez gero, baliagarria baita udalerraren edo eskola-ingurunearen ezaugarrien berri izateko. Era berean, adierazle bakoitzaren betetze-maila adieraziko da (guztiak aldagai jarraituak dira, 10. adierazlea izan ezik). Autoebaluazioa bi urtean behin egitea proposatzen dugu, eskola-inguruneetan hobekuntzarik dagoen baloratzeko. Garrantzitsua: adierazle batzuk udal-mailan emateko pentsatuta daude; kasu horretan, informazioa ematerakoan, "Ez da aplikatzen" adierazi behar da.

**Garrantzitsua:** inprimakia bete ondoren, bidali e-mail bat [mireia.gascon@isglobal.org](mailto:mireia.gascon@isglobal.org) helbidera, bete dela jakinarazteko.

# "Eskola-ingurune seguruak eta osasungarriak"

## EKIMENAREN 11 ADIERAZLEAK

[www.entornoscolares.es](http://www.entornoscolares.es)

Adierazleari lotutako "Eskola-ingurune seguruak eta osasungarriak" ekimenaren proposamena	Adierazle zenbakia	Adierazlearen deskribapena	Adierazlearen informazioa emateko moduaren adibideak
1. Eskola-esparru barruan dauden <b>aparkalekuen ordez</b> , bertan egoteko eta jolasteko eremuak eratzea.	1	Eskola-esparruan autoentzako aparkalekurik ez duten ikastetxeen ehunekoa.	<i>Eskola-esparru guztietatik, % 80k ez du auto edo motorren aparkalekurik eskola-esparruaren barruan.</i>
2. <b>Bizikletak, patinak eta patineteak aparkatzeko toki seguru bat gordetzea</b> eskola esparru guztietan edo haien inguruetan, eskolara mugikortasun aktiboa bultzatzeko.	2	Bizikletentzako, patinentzako eta patineteentzako aparkaleku seguruak duten ikastetxeen ehunekoa.	<i>Hezkuntza-esparru guztietatik, % 20k bizikletentzako, patinentzako eta patineteentzako aparkaleku seguruak dute.</i>
3. <b>Eskola-patioak landaretzaz betetzea</b> , espazio horiei itzala, freskotasuna eta kolorea ematen dieten, airearen kalitatea hobetzen duten eta zarata arintzen duten zuhaitz eta landareekin.	3	Eskola-baratzeak, estalki berdeak, lorategia, lorategi bertikala, sabai berdeak eta abar dituzten ikastetxeen ehunekoa (edozein aplikatzen da).	<i>Hezkuntza-esparru guztietatik, % 45ek eskolako baratzea, estalki berdeak edo lorategia, lorategi bertikala, sabai berdeak eta abar dituzte.</i>

<p>4. <b>Aparkalekuak eta trafikoa mugatzea</b> inguruko kaleetan eta, bereziki, ikastetxeetako sarreren inguruetan.</p>	4	Abiadura mugatuz (gehienez 20 km/h) eta ibilgailu-kopurua murriztuz, motordun ibilgailuen zirkulazioa baretzeko neurriak dituzten ikastetxeen ehuneko	Hezkuntza-esparru guztietatik, % 80k neurri argiak dituzte trafikoa baretzeko (adibidez, gehienezko abiadura 20 km/h).
	5	Sarreratik gertu autoen edo motorren aparkalekua mugatuta duten ikastetxeen ehunekoa.	Hezkuntza-esparru guztietatik, % 60k aparkalekua mugatzen du (hornitzaileen zama bano ezin dira egin).
<p>5. <b>Bide araudia zorrotz zaintzea eta betearaztea</b> ikasleen sarrera eta irteera orduetan, eskola eremua espazio segurua eta bizikidetzakoa izan dadin.</p>	6	Istilurik ez dagoenez eta arauak errespetatzen direnez, sarrera eta irteera kudeatzeko polizia-agenterik BEHAR EZ duten eskola-inguruneen ehunekoa.	15 ikastetxetatik bakar batean (% 6,7) behar da polizia.
	<p>6. <b>Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna lehenestea</b> eskola inguruko bideetan, ibilgailurik gabeko korridoreak sortuz, landaredia eta uraren presentzia sustatuz, eta espazio publikoan egoteko, elkartzeko eta jolasteko guneak sustatuz.</p>	7	Eskola-bidearen proiektua ezarrita duten ikastetxeen ehunekoa. Eskolako bidearen proiektuak <u>Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak</u> (seguruak, jasangarriak, osasungarriak, autonomiarekin) ezarritako estandarrei jarraitu behar die.
8		Ikastetxe bakoitzaren inguruan 1.000 metroko erradioan dauden kaleen km guztietatik, adierazi haur eta nerabeek modu autonomoan erabiltzeko aukera ematen duten bereizitako (autorik gabeko) bidegorrien kilometroen ehunekoa.	Ikastetxeen inguruan 1.000 metroko erradioan dauden kaleen kilometro guztietatik % 5ek bereizitako bidegorriak dituzte.

<p>Indicador no asociado a una propuesta concreta de la iniciativa</p>	<p><b>9</b></p>	<p>Bizikletaren eguneroko erabilera eta bide-segurtasuna sustatzeko hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeen ehunekoa (<a href="#"><u>ikus erreferentzia</u></a>)</p>	<p><i>Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 60k parte hartzen du hezkuntza-programan (zehaztu programa)</i></p>
<p>Indicador no asociado a una propuesta concreta de la iniciativa</p>	<p><b>10</b></p>	<p>Udalerriak, udal-ordenantza bidez, gehienez 30 km/h-ko abiadura du mugatuta udalerrri osoan (ez bakarrik DGTren araudi berriak ezartzen duena), eta araudia betearazten da abiadura-kontrolaren bidez</p>	<p><i>Bai, errei bikoitzeko bideetan izan ezik</i></p>
<p>Indicador no asociado a una propuesta concreta de la iniciativa</p>	<p><b>11</b></p>	<p>Oinez, patinetean edo bizikletan, heldu baten laguntzarik gabe ikastetxera modu autonomoan joaten diren udalerriko lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleen ehunekoa.</p>	<p><i>Ikasleen% 60 bakarrik doaz ikastetxera</i></p>

## NEURRI HAUEN ADIBIDE BATZUK:

- eskola-esparruaren inguruko kale mugakideak oinezkoentzat jartzea,
- irisgarritasun-araudia betetzen duten espaloiak egotea,
- hurrekin bat datozen seinaleak jartzea eta "ibilerraztasuna" eta egoteko erabilera hobetzen dituzten beste hiri-elementu batzuk jartzea.
- Adibidez, oinezkoentzako pasabideak daude bidegurutze guztietan, abiadura mugatzeko seinaleak daude, seinaleak automatikoak dira (hau da, ez da beharrezkoa sakatzea horiek aktibatzekeo – semaforoen kasuan –) eta hurrek eta nerabeek ikusteko moduan diseinatuta eta eraikita daude eta entzumen, ikusmen edo kognizio-desgaitasunen bat izan dezakeen edozein haur edo neraberentzat egokituak (adibidez, ez dago oinezkoen ikuspenari eta segurtasunari eragiten dien edukiontzirik). Era berean, "National Association of City Transportation Officials" (NATCO) izenekoak ezarritako irizpide gehiago ere badaude ["National Association of City Transportation Officials" \(NATCO\)](#).

## DEFINIZIOAK

- **Eskola-inguruneak:** kontzeptu honek ikastetxeek auzoarekin eta udalerriarekin duten harremana adierazten du. Barnean hartzen ditu ikastetxea inguratzen duen espazioaren hirigintza-baldintzak (espaloiak, bidegurutzeak, hiri-altzariak, landaretza, etab.); segurtasun-baldintzak (trafikoaren dentsitatea eta abiadura, hiri-bizitasuna, hurbileko jarduerak eta auzo-sareak, etab.); ikastetxera iristeko sarbideen baldintzak eta irisgarritasuna (oinezkoen eta bizikleten azpiegitura, garraio publikoko sareak, etab.).
- **Bizikleta, patinete eta abarrentzako aparkaleku segurua:** aparkaleku segurua da ibilgailuen zaintza eta egoera ona bermatzen duena, bai kokapenak eta baldintzek lapurretak edo bandalismoa ekiditen dituztelako, bai eta baldintza klimatikoetatik babesten duelako, batez ere euri asko egiten duen lekuetan. Eskolako aparkaleku on batek oso irisgarria izan behar du (sarreratik hurbil eta arrapalekin maldak gainditu behar badira), ahal bada, ikastetxearen barruan eta kontrolatutako leku batean. [IDAEren Eskuliburuan](#) bizikleta-aparkalekuendako irizpideak zehazten dira: segurtasuna, balio-aniztasuna, irisgarritasuna, kokapena, egonkortasuna, erosotasuna, klima-babesa, kostua eta mantentze-lanak ([ikus adibidea](#)).
- **Bide-segurtasuna eta jasangarria sustatzea:** haurrak, bide-segurtasuneko arauak betetzen diren eta hiri-hierarkian modu aktiboak bultzatzen eta errespetatzen diren ingurune batean bizi daitezen beharrezkoa baldintzak sortzea, haurrak askatasunez eta segurtasunez mugitu ahal izan daitezen.